

LUMA BERRIEN AZTARNAK
RUTH MARTIN APEZETXEA

Ruth Martin

Berbenetan, dantza

Esango nuke txalapartarena dela sortu orduko bizitzan entzuten dugun lehen soinua; zeren eta, esango nuke, geure bihotzak ttakun-kun-ttakun erritmoan ikasten baitu taupadan. Eta, esan ere esango nuke, orduz geroztik, berbena bat den honetan, etengabe dantzan gabiltzala.

Gure lehen dantzetan ez dugu inongo erritmorik jarraitzen, doinuren bat entzutea nahikoa dugu giharrak astintzeko, gozaten hasteko; gorputzari berez jarduten utziz soilik, inori erreparatu gabe. Etengabeko kalejira batean gabiltza, jiraka, saltoka, bulkadaka dantzan; estropezu eginez, eroriz sarri, eta sarri negarrez ere bai, dantza lekuan bertan ahuspez etzanda eta eskuak kopetan jarrita, ezin ulertuz nola baina eragin dezakeen halako gozamenak halako erresuminik.

Eta halako batean txo, geure garuna erritmoaren ahalmena garatzen hasten da txo, eta geure giharrak txo, dantzarako eredu batzuk jarraitzen hasten dira. Gogotik egiten dugu dantza, egin ere, eredu horiek barneratzeko. Sasoian gaude txo; odolak fandango eta ariñ-ariñaren erritmo bizia darama geure zainetan. Sasoian gaude txo; Rock and Rollak munduko biztanle bilakatu gaitu, eta haren erritmora txo, edozein leku nahiz egoeratan dantzatzeko gai sentitzen gara. *Everybody is Rock and Roll, baby.*

Bada garai honetan ere doinu goxo eta melengentzat tarterik; bada gure amets erromantikoentzat soinu-bandarik. Doinu horien erritmora mugitu baino kulunkatu egiten ditugu gorputzak, eta doinu horiek

entzutearekin batera hasten gara dantzarako, kulunkarako bikotea amesten.

Urteek aurrera egin ahala, ikasten dugu dantzarako benetan garrantzizkoena jarrera dela; dantza bakoitzari doakiona ulertuz gero, geure egin dezakegula edozein erritmo, salsa, pasodoble, hip-hop edota sevillanak berak ere. Urteek aurrera egin ahala, berbenan mota askotariko dantzak jotzen diren arren, ororen gainetik geure gustukoak dantzatu nahi ditugula konturatzten gara, urteek aurrera egin ahala.

Eta hara non, egun batean, batarekin eta bestearekin jardun eta gero, gustuko doinuak bikote berdinekin dantzatzeko nahiaz jabetu nintzen neu ere, eta "dantza-laguna" bilatzeari ekin nion: Neure erritmo berdinean mugituko zena, neure musika mota berdintsua atsegingo zuena, doinurik gabe ere dantzarako piztuko ninduen "hura". Eta hara non, egun batean, ustez aurkitu ere egin nuen; eta orduan, denboraldi luuze batez, neuretzat sortua zela zirudien balada zoragarri, hunkigarri, txundigarri bat dantzatu nuen etengabe, lau teilatzen gainean, ilargia erdian zegoela.

Konturatzerako berriro ere kalejiran hasia nintzen, oraingo honetan ostera nire seme-alabekin jiraka eta saltoka; baina ez jada bulkadek eraginda, erortzeko beldurrez baizik.

Jada odola ez zihoakidan zainetan fandango eta ariñ-ariñaren erritmo bizian. Eta zenbait dantzalekutan gainera, arrotz sentitzen zen neure burua, ez baitzegoen bertakoen erritmo berrietara jarria. *Baby, NO everybody is Rock and Roll.*



Irudia:
Kristina Fernandez

Dantzatzea praktika kontua da, eta bikoteka jardutea are eta gehiago. Praktikatu ezean, dantzari arteko sinkronia eten egin daiteke. Gertaerek, bizipenek, aldatu egin ditzakete dantza kideen erritmoak, baita dantzarako gogoak lapurtu ere. Bizitzaren aldi bakoitzari erritmoa hartzea ez da erraza, eta hori ezean zaila da musikarekin bat egin eta dantzan jarraitzea.

Halakorik gertatu eta zer egin ez nekien batean, jiraka eta bueltaka hasi nintzen, txikitari bezala; giharrak astinduz, gorputza mugituz, gogorik gabe ere, erritmoa berriro sentitu nuen arte.

Elkar sarriegi zapaltzen genuela-eta, bikoterik gabe egiten dut dantza orain; denetatik dantzaten dut dantzatu ere, eta binakako-etarako aurkitu aurkitzen dut noizbehinka kiderik.

Egun, tango doinuak ditut gustuko.

Tangoak, ezinbestekoa du dantzarien arteko besarkada on bat: indartsua bai, baina ez sobera, eta dantzarien gustura hurbildu eta urrundu daitekeena. Gidariak, musika nahiz kidea interpretatu egin behar ditu, eta gidatuak, haren interpretazioa ulertu, eta aberastu. Ez da lan erraza gero, behintzat ez dut orain arte tango-lagun egokirik aurkitu; besarkada estuegia egiten zaidalako batzuetan, eta bestetan ez dudalako zipitzik ere ulertzen.

Hala ere esango nuke, bakarka nahiz konpainian, dantzan jarraitu beharra dagoela beti; zeren eta, esango nuke, berbena batera heldu bagara dantzatzeko izango dela. Eta, esan ere esango nuke, horretxegatik, txalaparta soinuak iraun bitartean, ez genukeela geldirik egon behar.

Ruth Martin Apezetxea NOR DA

Hernaniarra. Antzerki nahiz dantza tailerrak zuzentzea du lanbide, eta istorioak asmatzea dibertimendu. Idazle Eskolarainoko bidaien falta sentitzen hasia da jada.